

## **2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA**

Gure produktuarekin, pertsona itsuentzat balorea sortzen dugu. Gure merkatu segmentua multzotan banatzen da; alde batetik itsuak, bestetik, haien familiako kideak edo ingurukoak eta azkenik ONCE erakundea. Ikertu dugunaren arabera, munduan, 253 milioi pertsona daude itsuak direnak edo ezgaitasun larria dutenak. Hau da, guzti hauek izan daitezke gure bezeroak. Hauen barruan, Espainian zehatz-mehatz 70.000 itsu daude. Beraz, gure produktuarekin, diru-laguntzak azken hauek eskuratu ahal izango dituzte soilik, Eusko Jaurlaritzari eta Espainako gobernuari eskatuko dizkiogulako laguntzak. Gainontzekoak, mundu mailan, produktuak duen kostua osotasunean ordaindu beharko dute. Azkenik, gure esparrutako bezeroek garrantzi berdina dutela kontsideratzen dugu, beraz guztiek izango dituzte prezio eta kondizio berdinak produktua eskuratzearekiko.